

Goi mailako teknologia erabiliko da hondakinak bereizteko Berrikuntzak Bizkaiko Zabor Birziklategian

Aritz Zubiate

Zornotzan dagoen enpresa horrek edukiontzi horietako hondakinak kudeatzen ditu, ontziak alegia. Egia esateko, eta izenak besterik dioen arren, bertan ez da ezer birziklatzen. Material desberdinak bereizten dira, geroago birziklatuko dituzten enpresa espezializatuetara bideratzeko. Ireki zenetik, 30.000 tona ontzi tratatu dituzte bertan. Iazko azaroan, instalazioak berriztu zituzten.

1999an sortu zen Zornotzako lantegia, hondakin solidoekin lotutako jarduerak sustatu eta kudeatzen dituen Garbiker Aldundiaren Sozietate Publikoaren eta Trienekens enpresaren parte-hartzearekin. Hondakin kudeaketan esperientzia luzea du azken horrek, horren antzeko hainbat esperientzia kudeatu baititu. Gaur egun, 23 pertsonak egiten dute lan Zornotzan.

Hainbat helbururekin sortu zen BTB. Alde batetik, hiriko eta industriako hondakin solidoetako gai birziklagarriak bildu, banatu eta kudeatzea. Bigarrenik, ontziak eta hondakinak kudeatzeari buruzko legeria betetzea eta ikuspegi integrala aplikatzea. Gizartea, merkataritza eta industria sentsibilizatzea. Bizkaiko lurraldea arlo horretan puntako lurralde bilakatzen laguntzea. Materialak zatikitan sailkatzea, industriak eskatutako baldintzak betetzeko. Eta, azkenik, jatorrian sailkatutako hondakin zikloa ixtea.

Azaroaren 13an inauguratutako instalazioak aurrerapen nabaria dira. Alde batetik, orain Bizkaia da



Dispositibo eta ekoizpen sistema berriak BZB-n.



Goi mailako teknologia.

Estatu osoan ontzien banaketa automatikoa duen herrialde bakarra. Bestelako abantailak ere badituzte instalazio berriek. Ekoizpen ahalmen handiagoa dute: 15.000 tona urtean. Hondakin kopuru handiagoa tratatzen dute. Oker sailkatutako hondakien kopurua txikiagoa da. Horrez gain, zatiki homogeenagoak lortzea ahalbidetzen dute, azken produktuaren berrerabilpena errazte aldera.

Ekoizpen prozesua

BZBk bere gain hartzen ditu ontzi-hondakinak banatzeko eta sailkatzeko fase guztiak, materiala jasotzen denetik zatiki guztietatik banatutako materialak prestatzen diren arte.

Materiala jaso eta Zornotzara eramatearekin batera hasten da BZBren lana. Kamioiek, pisatu ondoren, bertako nabean botatzen dute barruan darmaten guztia. Ondoren, pala kargatzaile batek plastikozko poltsak apurtzeko gailua duen zinta batean uzten ditu nabean botatutako materialak. Poltsak ireki ezean, hondakinak zinta garraiatzaile batean jartzen dira, eta horrek tromel bateraino igotzen ditu. Tromelak, biraka, errazago banatzen ditu neurri txikiko zatikiak.

Gainontzeko hondakinak zinta garraiatzaile batetik doaz, intereseko zatikiak automatikoki sailkatzeko: altzairua, plastiko mota desberdinak, plastiko nahasketa, tetra-brikak eta aluminiozko ontziak. Metalak mekanikoki banatzen dira, burdina ekipo magnetiko batekin eta aluminioa Foucaulten korranteak erabiliz.

Lortutako materialak prentsatu egiten dira, birziklatuko dituzten enpresetara bideratzeko. Trinkotzeko gailu batek gainontzeko gaiak prestatzen ditu, kudeaketa egokia egiteko, erretzeko eta energia berreskuratze edo zabortegei kontrolatu batean uzteko.



Berrikuntza teknologikoak

Dispositibo eta ekoizpen sistema berriak aitzindari bihurtzen du BZB. Guztiz automatizatuta dago lantegia orain, birziklapen industriar erabilitako goi mailako teknologia

erabiltzen duelarik. Autosort deritzon sistema erabiltzen da, ezagutza optikoaren bidezko hondakinen sailkapen sistema. Lehen eskuz egiten zen lana errobot bidez burutzen da orain. Metodo honekin bizkaitarrek edukiontzi horietan utzitako ontzien igoera asetu ahal izango da, datozen hamar urteetan biztanleko 8 kg urtean botatzetik 11-12 kg botatzera pasatuko baitira.

Bere sorreratik, lantegi hau birziklapen prozesu konplexuko katebegi garrantzitsuenetakoa da. Prozesu hau guztion eguneroko ahaleginarekin hasten da, zaborrak bereizi eta dagozkion edukiontzira botatzen ditugunean. Horrela, zaborraren kudeaketa egokia ingurumenari egindako kaltea gutxitzeko bitarteko apropos bezala agertzen da, zabortegietako gaien kopurua txikitu eta birziklapenera bideratutakoa handituz. Egindakoa garrantzitsua izanik ere, aurrerantzean ere izango dugu zereginik.

NUEVAS Y MODERNAS INSTALACIONES EN BZB

Bizkaiko Zabor Birziklategia (BZB), situado en Amorebieta, se encarga de la gestión de los contenidos de los contenedores amarillos, los envases, de todo el territorio de Bizkaia. El pasado 13 de noviembre se reinauguró con la apertura de nuevas y modernas instalaciones. Aunque su nombre pueda indicar lo contrario, en BZB no se reciclan materiales, sino que se separan y se dirigen a empresas especializadas en reciclaje, gestores de plástico, metal, madera, etc.

Desde su apertura en 1999 se han tratado 30.000 toneladas de residuos en su interior. En lo que respecta a las nuevas instalaciones, éstas convierten a Bizkaia en la única del Estado con separación automática de envases. También incrementan su capacidad productiva, hasta alcanzar las 15.000 toneladas anuales, reduciendo además los materiales clasificados de forma incorrecta. El nuevo sistema proporciona materiales más homogéneos, lo que facilita su reutilización.

Las innovaciones tecnológicas instaladas destacan el carácter pionero de BZB. En la actualidad, la planta se encuentra totalmente automatizada, con instalaciones punteras en el sector del reciclaje. Se utiliza el sistema autosort, de separación automática de residuos a través del reconocimiento óptico de los mismos. El trabajo que antes se hacía de forma manual pasa a realizarse con robots. Con este método podrá satisfacerse el aumento de los envases depositados en el contenedor amarillo, que en la actualidad es de 8 kgs anuales por persona, y se espera que pase a ser de 11-12 kg de envases por persona y año.

Ez itxi
begiak!

Zeuk
erabakitzen
duzu!

